**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**6808**

AGINDUA, 2008ko abenduaren 2koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan diagnosi-ebaluazioko prozesua arautzen duena.

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapak gure hezkuntza-sisteman oinarrizko eta derrigorrezkoak diren bakarrak dira, eta horregatik bermatu behar da etapa horietan ikasle guztiek gure gizartean herritar aktibo, parte-hartzaile eta kritiko gisa jokatu ahal izateko funtsezko eta ezinbestekotzat jo diren zenbait gaitasun eskura ditzaten.

Derrigorrezko hezkuntzaren baitan, gero eta nabariagoa da ikasleen gaitasun-mailak nahiz ikastetxeen eta hezkuntza-sistemaren egoera behar adinako objektibotasunez ezagutzeko premia. Orain arte, ordea, ikastetxeek ez dute beren egoera behar bezala ebaluatzea eta epe ertainean izan duten bilakaera ezagutzea ahalbidetuko dien kanpoko erreferentzia garbirik izan, gaur egun ikastetxeetan dauden ebaluazio-prozesuak eta, horrenbestez, ikasleen arrakasta edo porrota neurtzeko emaitzak barneko hezkuntza-irizpideen eta prozedura partikularren arabera xedatzen direlako; beraz, horrela lortutako emaitzak nekez dira alderagarriak.

Azken urteotan, euskal hezkuntza-sistemak, ISEI-IVEIren bitartez, ildo horretan hasierako urratsak eman ditu: alde batetik kanpo-ebaluazioko prozesu zabal bat abiatu du, gure hezkuntza-sistemako alderdi jakin batzuk neurtzeko berariaz sortutako probak baliatuz, eta bestetik, PISA eta TIMMS bezalako nazioarteko ebaluazioetan parte hartu du; ebaluazio horiek gure hezkuntza-sistemaren indarguneak eta hobetu beharreko alorrak detektatzeko lagungarriak dira. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da PISA ekimena (ikasleen nazioarteko ebaluaziorako programa), ELGAk (Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea) zuzendua. Programa horretan, herrialde ezberdinetako hezkuntza-sistemetako curriculumen artean egon litezkeen aldeak gorabehera, ikasleek eskuratu behar dituzten oinarrizko gaitasunak neurtzeko probak erabiltzen dira, horrela emaitzen alderaketa erraztuz.

Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE) eta urriaren 16ko 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duena (EHAA, 2007-11-13), onartzean, alor horretan dauden bi premiari erantzun eguneratua eman zaie. Alde batetik, gure hezkuntza-sisteman kanpoko ebaluazio-prozesuak txertatzeko premia, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ebaluazio diag-

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**6808**

ORDEN de 2 de diciembre de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el proceso de evaluación de diagnóstico en los centros educativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las etapas de Educación Primaria y de Educación Secundaria Obligatoria son las únicas básicas y obligatorias de nuestro sistema educativo y por ello hay que garantizar que en dichas etapas todo el alumnado adquiera una serie de competencias que se han definido como básicas e imprescindibles para desenvolverse como ciudadanos y ciudadanas activos, participativos y críticos en nuestra sociedad.

En este contexto de educación obligatoria, cada vez es más evidente, la necesidad de conocer tanto los niveles competenciales del alumnado como la situación de los centros y del sistema educativo en su globalidad de una manera suficientemente objetiva. Sin embargo, hasta ahora, los centros han carecido de un referente externo claro que les permitiera valorar adecuadamente su situación y percibir su evolución a medio plazo, porque los procesos de evaluación existentes actualmente en los centros y, como consecuencia, los resultados de éxito o fracaso del alumnado se realizan a partir de criterios educativos internos y procedimientos particulares, lo que conduce a que los resultados obtenidos por esa vía sean difícilmente comparables.

El sistema educativo vasco, a través del ISEI-IVEI, ha dado los primeros pasos en los últimos años a través de un amplio proceso de evaluación externa mediante pruebas creadas expresamente para medir aspectos específicos de nuestro sistema educativo, así como por la participación en evaluaciones internacionales como PISA y TIMSS, que están sirviendo para detectar los puntos fuertes y las áreas de mejora de nuestro sistema educativo. En este sentido es de destacar la iniciativa PISA (Programa para la evaluación internacional del alumnado), dirigida por la OCDE, que utiliza pruebas basadas en competencias básicas que debe alcanzar el alumnado con independencia de las peculiaridades curriculares que caracterizan a los sistemas educativos de los diferentes países, facilitando de este modo la comparabilidad entre los resultados obtenidos.

La aprobación de la Ley Orgánica de Educación (LOE) y del Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educción Básica para la Comunidad Autónoma Vasca (BOPV de 13-11-2007), suponen una respuesta actualizada a dos necesidades. Por un lado, la de incorporar los procesos de evaluación externa a nuestro sistema educativo, mediante las evaluaciones diagnósticas en las etapas de la

nostikoak eginez, eta bestetik, oinarrizko gaitasunak curriculumaren beste osagai bat bezala hartzeko premia, gaitasun horiek herritarren etengabeko ikaskuntzarako duten balioa aitortuz.

Agindu honetan arautzen den ebaluazio diagnostikoa ez da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren erantzukizuna soilik, erantzukizun partekatua baizik, eta batez ere ikastetxeentzat hobetzeko aukera eta erronka moduan ulertu behar da. Beraz, kanpo-ebaluazio horretaz gain, ikastetxeek beren emaitzak testuinguruan kokatuko dituzte barne-ebaluazioko prozesu osagarri baten bidez.

Ebaluazio diagnostikoa ikasleek beren eskola-ikaskuntzaren funtsezko osagai gisa eskuratu behar dituzten oinarrizko gaitasunen ebaluazioan oinarrituko da. Ebaluazio horrek ez du irakasleek ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren baitan egiten duten ebaluazioa ordezkatzen, zalantzarik gabe ikasleen ikaskuntzari buruzko informazio osagarria eskaintzen duen arren.

Hori guztia aintzat hartuta, Agindu honek euskal hezkuntza-sistemari begira proposatu den ebaluazio diagnostikoaren xedea, aplikazio-esparrua, helburua, edukia, ebaluazio-prozesua eta hobekuntza-prozesua definitzen ditu; diagnosi-ebaluazio hori funts publikoak dituzten ikastetxe guztiek egin beharko dute, LOEn eta EAEn Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezarri duen Dekretuan adierazitako ikasturteetan.

Aurrekoari jarraiki,

XEDATZEN DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Agindu honen xedea da diagnosi-ebaluazioko probak, horien aplikazioa eta Hobekuntzarako Esku-hartze Planak arautzea.

***2. artikulua.***– Aplikazio-esparrua.

1.– Diagnosi-ebaluazioko probak Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoak dituzten ikastetxe guztietan egingo dira.

2.– Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan dauden ikasle guztiek diagnosi-ebaluazioko probak egin beharko dituzte, prozesu orokorrean ezartzen diren baldintza eta egunetan.

3.– Ezgaitasunen bat izateagatik banakako curriculum-egokitzapena izan duten ikasleek diagnosi-ebaluazioko prozesu honetan parte hartuko dute ahal den neurrian, probak egiteko orduan behar diren egokitzapenak eginda. Bere egoera dela-eta, ikasle batek prozesu orokorrean ezarritako baldintzetan ezin badu parte har-

E. Primaria y la E. Secundaria Obligatoria y, por otro, considerar las competencias básicas como un componente más del currículo, reconociendo el valor de dichas competencias para el aprendizaje permanente de los ciudadanos y ciudadanas.

La evaluación de diagnóstico que se regula en esta Orden no debe ser entendida exclusivamente como una responsabilidad del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, sino como una responsabilidad compartida y sobre todo como una posibilidad de mejora y un reto para los centros escolares. Por ello, además de esta evaluación externa, los centros contextualizarán sus propios resultados en un proceso complementario de evaluación interna.

La evaluación de diagnóstico se basará en la evaluación de las competencias básicas que los alumnos y alumnas deben adquirir como elemento esencial de su aprendizaje escolar. Esta evaluación no sustituye a la evaluación que realiza el profesorado en el marco del proceso de enseñanza-aprendizaje, aunque es indudable que aporta una información complementaria sobre el aprendizaje del alumnado.

Teniendo en cuenta todo ello, esta Orden define el objeto, el ámbito de aplicación, la finalidad, el contenido, el proceso de evaluación y el proceso de mejora que forman parte de la evaluación de diagnóstico que se propone para el sistema educativo vasco y que deberán llevar a cabo todos los centros sostenidos con fondos públicos en los cursos señalados en la LOE y en el Decreto por el que se establece el currículo de la Educación Básica en la CAPV.

En virtud de lo anterior,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto regular las pruebas de la evaluación de diagnóstico, su aplicación y los correspondientes planes de intervención para la mejora.

***Artículo 2.***– Ámbito de aplicación.

1.– Las pruebas de la evaluación de diagnóstico se aplicarán en la totalidad de los centros docentes sostenidos con fondos públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Todos los alumnos y alumnas que cursen 4.º de E. Primaria y 2.º de Educación Secundaria Obligatoria deberán realizar las pruebas de evaluación diagnóstica en las condiciones y tiempos que se establezcan en el proceso general.

3.– El alumnado objeto de una adaptación curricular individualizada como consecuencia de algún tipo de discapacidad participará, en la medida de lo posible, en este proceso de evaluación diagnóstica con las pertinentes adaptaciones de acceso a las pruebas. Cuando su situación específica no le permita participar en las condi-

tu, ikastetxea izango da haren partaidetzarako baldintzei buruzko erabakia hartuko duena, dagokionean ezarriko diren irizpide orokorrei jarraiki.

***3. artikulua.***– Diagnosi-ebaluazioko proben helburua.

1.– Diagnosi-ebaluazioko proben helburua izango da Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan ari diren ikasleek oinarrizko gaitasunen jabekuntzan lortu duten maila egiaztatzea. Hala dagokionean, aipatu gaitasunen jabekuntza-maila neurtzeko orduan inguruneko faktore soziokulturalak aintzat hartuko dira.

2.– Ebaluazio diagnostikoak izaera hezigarri eta orientatzailea du ikastetxeentzat, eta informatzailea familientzat zein hezkuntza-komunitate osoarentzat. Hezkuntza-jarduerari eta ondoren ikastetxearen hezkuntza-plangintzaren gainean erabakiak hartzeari buruzko hausnarketa bideratzen eta Hobekuntzarako Esku-hartze Plana ezarrita emaitzak hobetzen lagundu nahi du.

3.– Diagnosi-ebaluazioko probetan lortzen diren emaitzek ez dute ikasleentzat ondorio akademikorik izango; beraz, emaitza horiek ez dute inoiz ikasleen etengabeko ebaluazio-prozesuan eragingo.

***4. artikulua.***– Diagnosi-ebaluazioko proben edukia.

1.– Probak ikasleek beren bizialdi osoan pertsonalki, sozialki eta lanaren arloan garatu ahal izateko beharko dituzten oinarrizko gaitasunei buruzkoak dira, urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duena, 7.2 artikuluan jasoak. Gaitasunok hauek dira:

– Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.

– Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

– Matematikarako gaitasuna.

– Gizarteko kide eta herritar izateko gaitasuna.

– Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.

– Ikasten ikasteko gaitasuna.

– Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

– Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna.

2.– Hezkuntza sailburuordeak erabakiko du ikasturte bakoitzean zein oinarrizko gaitasun ebaluatuko diren.

***5. artikulua.***– Ebaluazioaren prozesua: Diagnosi-ebaluaziorako batzordeak.

1.– Hezkuntza Sailburuordetzak Batzorde Tekniko bat eratuko du, eginkizun hauek izango dituena: ebalu-

ciones establecidas en el proceso general, será el centro docente el que tomará la decisión sobre las condiciones de su participación a partir de los criterios generales que en su momento se establezcan.

***Artículo 3.***– Finalidad de las pruebas de la evaluación de diagnóstico.

1.– Las pruebas de evaluación de diagnóstico tendrán como finalidad comprobar el nivel de adquisición de las competencias básicas alcanzadas por el alumnado que esté cursando 4.º de Educación Primaria y 2.º de Educación Secundaria Obligatoria. En su caso, el citado nivel de adquisición competencial tendrá en cuenta factores contextuales de carácter sociocultural.

2.– La evaluación de diagnóstico tiene un carácter formativo y orientador para los centros e informativo para las familias y para el conjunto de la comunidad educativa. Pretende facilitar la reflexión sobre la práctica educativa y la posterior toma de decisiones sobre la planificación educativa del centro y contribuir a la mejora de los resultados mediante la aplicación del correspondiente Plan de intervención para la mejora.

3.– Los resultados que se alcancen en las pruebas de la evaluación de diagnóstico carecerán de efectos académicos para el alumnado, de forma que en ningún caso el proceso de evaluación continua de cada uno de los alumnos y alumnas se vea afectado por los mismos.

***Artículo 4.***– Contenido de las pruebas de evaluación de diagnóstico.

1.– Las pruebas versarán sobre las competencias básicas para el desarrollo personal, social y laboral del alumnado a lo largo de toda la vida, tal y como se recogen en el artículo 7.2 del Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica que se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Estas competencias son las siguientes:

– Competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud.

– Competencia en comunicación lingüística.

– Competencia matemática.

– Competencia social y ciudadana.

– Competencia en cultura humanística y artística.

– Competencia para aprender a aprender.

– Competencia en el tratamiento de la información y competencia digital.

– Competencia para la autonomía e iniciativa personal.

2.– El Viceconsejero de Educación determinará las competencias básicas que serán objeto de evaluación en cada curso escolar.

***Artículo 5.***– Proceso de evaluación: comisiones para la evaluación de diagnóstico.

1.– La Viceconsejería de Educación constituirá una Comisión Técnica cuyas funciones serán las siguien-

azioaren ezaugarriak eta antolaketa taxutzea, haren fase guztiak kudeatzea, haren garapenaren jarraipena egitea, prozesuan esku hartuko duten taldeak koordinatzea, ebaluazio diagnostikoa hobetzeko proposamenak egitea, eta dagokionean xeda litekeen beste edozein eginkizun.

2.– Batzorde Tekniko hori ebaluazio diagnostikoaren garapenean elkarrekin lan egin beharko duten zerbitzuetako ordezkariak osatzen dute: Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen Zuzendaria, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria eta Hezkuntza Ikuskari Nagusia, edo hauek beste norbaiten utzitako eskuordetze. Aipatu zerbitzuetako bakoitzak berariaz izango dituen egitekoak hauek dira:

– Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea: ebaluazio diagnostikoaren aplikazioa taxutzea eta haren garapena koordinatzea; errendimendu-probak eta galdesortak prestatzea -horretarako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko beste zerbitzu eta langile batzuen laguntza eduki ahal izango du-; item irekien zuzenketa-prozesua prestatu eta kontrolatzea; datu orokorrak eta partzialak aztertzea, eta txostenak egin eta kudeatzea. Azken egiteko horri dagokionez, gutxienez txosten hauek aurkeztu beharko dira: hezkuntza-sistemaren txosten orokorra, ikastetxe bakoitzaren berariazko txostena eta ebaluazioan parte hartu duen ikasle bakoitzaren banakako txostena.

– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza: probak egiteko, 175/2007 Dekretuan zehaztutako oinarrizko gaitasunak garatzea; Berritzegune bakoitzeko aholkularien bidez ikastetxeei ebaluazio diagnostikoaren prestakuntzan nahiz ikastetxe bakoitzaren Hobekuntzarako Esku-hartze Planaren baitako prozesuetan trebakuntza eta aholkularitza eskaintzea, eta ISEI-IVEIri errendimendu-probak moldatzen laguntzea, hala eskatzen zaionean.

– Hezkuntza Ikuskaritza: Ikastetxe bakoitzean ebaluazioa koordinatzeko taldearen sorrera sustatzea, Agindu honen 5.3 artikuluan zehazten den moduan; ebaluazioan parte hartu behar duten ikasleen zerrendak egiteko aholkularitza eskaintzea; ISEI-IVEIri errendimendu-probak moldatzen laguntzea, hala eskatzen zaionean; ikastetxeetan aplikazio-prozesuaren kalitatearen kontrolean parte hartzea; ikastetxe bakoitzaren txostenak eta Hobekuntzarako Esku-hartze Planak baloratzea, eta plan horien gauzapenaren jarraipena egitea.

3.– Ikastetxe bakoitzean, ikasturte bakoitzaren hasieran, ebaluazio diagnostikoa koordinatzeko talde bat eratuko da, gutxienez zuzendaria, ikasketaburua eta ebaluatutako maila bakoitzeko -Lehen Hezkuntzako 4. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila- tutore bat barne hartuko dituena.

tes: diseño de las características y organización de esta evaluación, gestión de todas sus fases, seguimiento de su desarrollo, coordinación de los diferentes equipos implicados, realización de propuestas de mejora de la evaluación de diagnóstico y cualquier otra que en su momento pueda definirse.

2.– Esta Comisión Técnica estará integrada por los servicios que coordinadamente deberán trabajar en el desarrollo de esta evaluación de diagnóstico, representados por: Director del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa, Director de Innovación Educativa e Inspector General de Educación, o personas en quienes deleguen. Las tareas que corresponderán de forma específica a cada uno de los citados servicios serán las siguientes:

– Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa: elaborar el diseño de aplicación de la evaluación de diagnóstico y coordinar su desarrollo; elaborar las pruebas de rendimiento y cuestionarios, para lo que podrá contar con la colaboración de otros servicios y personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación; preparar y controlar el proceso de corrección de ítems abiertos; analizar los datos globales y parciales y realizar y gestionar los distintos informes, entre los cuales, al menos, deberán estar el Informe global del sistema educativo, el informe específico de cada centro y el informe individualizado de cada alumno y alumna que haya tomado parte en esta evaluación.

– Dirección de Innovación Educativa: desarrollar las diferentes competencias básicas definidas en el Decreto 175/2007 para la elaboración de las pruebas, formar y asesorar a los centros docentes a través de los asesores y asesoras de cada Berritzegune tanto en la preparación de la evaluación de diagnóstico como en los procesos incluidos en el Plan de intervención para la mejora de cada centro y colaborar con el ISEI-IVEI en la elaboración de las pruebas de rendimiento, cuando así se le requiera.

– Inspección de Educación: promover la creación del equipo de coordinación de la evaluación en cada centro que se señala en el artículo 5.3. de esta Orden; asesorar en la elaboración de los listados de alumnos y alumnas que deben participar en esta evaluación; colaborar con el ISEI-IVEI en la elaboración de las pruebas de rendimiento, cuando así se le requiera; participar en el control de calidad del proceso de aplicación en los centros docentes, valorar los Informes de cada centro y los Planes para la intervención para la mejora y realizar el seguimiento de la ejecución de estos Planes.

3.– En cada centro docente, al comienzo de cada curso escolar, se constituirá un Equipo de coordinación de la evaluación de diagnóstico que deberá estar integrado, al menos, por el director o directora, el jefe o jefa de estudios y un tutor o tutora de cada uno de los niveles evaluados: 4.º de E. Primaria y 2.º E. Secundaria Obligatoria.

4.– Ikastetxeko koordinazio-taldearen eginkizunak hauek izango dira:

– Bere ikastetxean diagnosi-ebaluazioko prozesua planifikatu eta koordinatzea, horretarako irizpide eta ildo orokorrei jarraiki.

– Bere hezkuntza-komunitateko kide guztiak ebaluazio diagnostikoaren zentzuari, helburuei eta ezaugarriei buruz informatzea eta sentsibilizatzea.

– Probak eta galdesortak aplikatzeko prozesua daramaten ikastetxetik kanpoko pertsonekin elkarlanean aritzea eta haiei laguntzea.

– Ikastetxearen emaitzen txostenak aurkeztu eta Hobekuntzarako Esku-hartze Planak taxutu.

***6. artikulua.***– Ebaluazioaren prozesua: Proben aplikazioa.

1.– Probak urtean behin egingo dira, ahal delarik ikasturte bakoitzeko azken hiruhilekoaren hasieran, ikastetxeek berek egiten dituzten ebaluazio akademikoekin batera eman ez daitezen. Hezkuntza Sailburuordetzaren Ebazpen baten bidez, ikasturte bakoitzean probak egingo diren aldi zehatza ezarriko da, eta baita horien iraupena ere.

2.– Ikastetxe bakoitzeko zuzendariak proba egingo zaien ikasle guztien zerrenda osatuko du; zerrenda horretan Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiak jaso beharko dira.

3.– Ikastetxe guztietan, probak eta galdesortak ISEI-IVEIk horretarako hautatutako ikastetxetik kanpoko pertsonek kudeatuko dituzte. Ikastetxeko zuzendaritzak, Agindu honen 5.3 artikuluan zehaztutako Koordinazio Batzordearen bitartez, bere ikastetxean diagnosi-proben gauzapena erraztu eta zeregin horretan lagundu beharko du, eta, probak egiteko unean, ebaluatutako talde bakoitzean ikastetxeko irakasle bat egongo dela bermatu beharko du, ikasleek portaera egokia izango dutela ziurtatzearren.

4.– Hezkuntza Ikuskaritzak, ebaluazio honetan aurrez ezarritako irizpide estandarizatu guztiak errespetatzen direla egiaztatze aldera, probak egiteko prozesuaren kalitatea kontrolatuko du ikastetxeen lagin bat eginez, eta ISEI-IVEIri antzemandako irregulartasun edo gorabehera guztien berri emango dio.

***7. artikulua.***– Emaitzen eskuragarritasuna, erabilera eta tratamendua.

1.– 175/2007 Dekretuaren 36.4 artikuluan adierazten denez, ebaluazio diagnostikoan lortutako informazio guztia erabiltzean Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, bete beharko da. Horretarako, irizpide hauek aintzat hartu beharko dira:

4.– Las funciones que corresponden al Equipo de coordinación de centro serán las siguientes:

– Planificar y coordinar el proceso de evaluación de diagnóstico en su centro, siguiendo los criterios y pautas generales.

– Informar y sensibilizar a todos los miembros de su comunidad educativa sobre el sentido, finalidades y características de la evaluación de diagnóstico.

– Colaborar y ayudar a las personas externas al centro que lleven a cabo el proceso de aplicación de pruebas y cuestionarios.

– Presentar los informes de resultados del centro y elaborar el Plan de Intervención para la mejora.

***Artículo 6.***– Proceso de evaluación: aplicación de las pruebas.

1.– Las pruebas se realizarán con carácter anual preferentemente al inicio del último trimestre de cada curso escolar, a fin de que no coincidan con ninguna de las evaluaciones académicas llevadas a cabo por los propios centros docentes. Mediante Resolución de la Viceconsejería de Educación en cada curso escolar se establecerá el período concreto en el que se procederá a la aplicación de las pruebas, así como la duración de las mismas.

2.– El director o directora de cada centro, elaborará el listado de todos los alumnos y alumnas a los que se les aplicará la prueba, que debe ser coincidente con el alumnado que se encuentra en 4.º de E. Primaria y 2.º de Educación Secundaria Obligatoria.

3.– La aplicación de las pruebas y cuestionarios en los diferentes centros docentes será llevada a cabo por personal externo al centro designado a tal efecto por el ISEI-IVEI. La dirección del centro, a través de la Comisión de Coordinación definida en el artículo 5.3. de esta Orden, deberá facilitar y colaborar en el desarrollo de las pruebas de diagnóstico en su centro, así como garantizar la presencia durante todo el proceso de aplicación en cada uno de los grupos evaluados de un profesor o profesora del centro, que velará por el correcto comportamiento del alumnado.

4.– La Inspección de Educación, a fin de verificar que se respetan todos los criterios estandarizados previamente definidos en esta evaluación, llevará a cabo el control de la calidad de este proceso de aplicación en una muestra de centros e informará al ISEI-IVEI de todas las anomalías e incidencias detectadas.

***Artículo 7.***– Acceso, uso y tratamiento de los resultados.

1.– Como se señala en el artículo 36.4 del Decreto 175/2007, en el uso de toda la información obtenida en esta evaluación de diagnóstico se deberá tomar en consideración la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. Para ello se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

– Datu pertsonalak ebaluazioaren helburuei begira egokiak, bidezkoak eta ez gehiegizkoak direnean soilik bilduko dira.

– Datu pertsonal horiek ezingo dira bildu diren helburuekin bateragarriak ez diren beste helburu batzuetarako erabili. Datuen ondorengo tratamendua ez da bateraezintzat hartuko, datuok banakako emaitzen bilakaera luzetara aztertzeko erabiltzen direnean.

– Datu pertsonalak deuseztatuak izango dira bilduak edo erregistratuak izan ziren helburuetarako beharrezkoak edo bidezkoak izateari uzten diotenean.

– Datu pertsonal guztiak, eta baita probak egiteko prozesu bakoitzean parte hartzen duten ikastetxe eta taldeenak ere, horiek identifikatu ahal ez izateko moduan bildu eta gorde beharko dira, eta horretarako kode alfazenbakizkoak erabiliko dira beti, eta inoiz ez izen bereziak edo ikastetxeen izenak.

– ISEI-IVEIk, ebaluazioaren datu guztien eta, hortaz, fitxategi guztien arduraduna den heinean, beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolaketazko guztiak hartu beharko ditu datu guztien segurtasuna zein isilpekotasuna bermatzeko eta horiek alteratzea, galtzea edo Agindu honetan baimendu gabeko modu batean tratatzea edo eskuratzea eragozteko.

– Beren lana edo lanpostua dela-eta probak egiteko prozesuaren edozein fasetan edo datuen tratamenduan parte hartzen duten edo emaitzetarako sarbidea duten pertsona guztiek isilpekotasuna eta sekretu profesionala gorde beharko dute, eta obligazio hori ebaluazio diagnostikoarekiko harremana bukatu ondoren ere indarrean egongo da.

2.– Ikastetxe bakoitzaren eta ikasle bakoitzaren datuen isilpekotasuna bermatze aldera, informazioa eskuratzeko sistema mugatu bat ezarriko da.

3.– Ebaluazio diagnostikoaren ondorioz ikastetxe bakoitzak jasotzen dituen emaitza eta informazio guztien zaintza dagokion ikastetxeko zuzendariaren ardura izango da.

4.– Ebaluazio diagnostikoaren emaitza ezingo da inoiz ikastetxeen arteko sailkapenak egiteko nahiz hurrenkerak ezarriz ikastetxeen arteko alderaketak egiteko erabili.

5.– Parte hartu duen ikastetxe eta talde bakoitzaren batez besteko emaitzetan, probetan parte hartu duen ikasle bakoitzaren banakako emaitzak kontuan izango dira, kasu hauetan izan ezik:

– Banakako curriculum-egokitzapen esanguratsua izan duten ikasleak, Agindu honen 2.3 artikuluan jasotako neurrietakoren baten bidez parte hartzerik ez dutenean.

– Sólo se recogerán datos de carácter personal cuando éstos sean adecuados, pertinentes y no excesivos en relación con las finalidades de la evaluación.

– Estos datos de carácter personal no podrán ser usados para finalidades incompatibles con aquellas para las que los datos hubieran sido recogidos. No se considerará incompatible el tratamiento posterior de éstos cuando los mismos sean empleados para valorar la evolución de resultados individuales con un carácter longitudinal.

– Los datos de carácter personal serán cancelados cuando hayan dejado de ser necesarios o pertinentes para los fines por lo que fueron recabados o registrados.

– Todos los datos de carácter personal, así como los de todos los centros y grupos participantes en cada aplicación, serán recogidos y conservados en forma que no permita su identificación, para lo que se utilizarán en todo momento códigos alfanuméricos y nunca nombres propios o nombres de centros.

– El ISEI-IVEI, responsable del tratamiento de todos los datos de esta evaluación y, por lo tanto, de todos los ficheros, deberá adoptar las medidas de índole técnica y organizativa necesarias para garantizar la seguridad y confidencialidad de todos los datos y evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado en esta Orden.

– Todas las personas que por razones de su trabajo o puesto intervengan en cualquier fase del proceso de aplicación o en el tratamiento de datos o tenga acceso a los resultados estarán obligadas a guardar la confidencialidad y el secreto profesional, obligación que subsistirá aun después de finalizar su relación con la evaluación de diagnóstico.

2.– Para garantizar la confidencialidad de los datos de cada uno de los centros y de cada uno de los alumnos y alumnas se establecerá un sistema restringido de acceso a la información.

3.– La custodia de todos los resultados e informaciones que, como consecuencia de la evaluación de diagnóstico se traslade a cada centro docente, corresponderá al director o directora del mismo.

4.– El resultado de la evaluación de diagnóstico no podrá ser usado en ningún caso para el establecimiento de clasificaciones de centros ni para comparaciones nominales con fines de ordenación.

5.– En los resultados medios de cada centro y grupo participante se tendrán en cuenta todos los resultados individuales de cada uno de los alumnos y alumnas que hayan participado en las pruebas, exceptuando los siguientes casos:

– Alumnado que sea objeto de una adaptación curricular individualizada significativa y no sea posible su participación a través de alguna de las medidas de acceso señaladas en el artículo 2.3 de esta Orden.

– Probak egiteko unean euskal hezkuntza-sisteman eskolatuta urtebete baino gutxiago daramaten eta probak egitean erabiliko den hizkuntza hitz egiten ez duten ikasleak.

***8. artikulua.–*** Hobekuntzaren prozesua: Ebaluazioaren ondorengo jarduketak.

1.– Erreferentziako ikuskariak bilera batera deituko ditu Berritzegunearen erreferentziako aholkularia eta ikastetxe bakoitzean ebaluazio diagnostikoa koordinatu duen taldea, emaitzei buruzko lehen hurbilketa egiteko eta dagokion ikastetxeak bere Ikastetxeko Txostena eta Hobekuntzarako Esku-hartze Plana taxutzeko beharrezkoak den informazioa helarazteko.

2.– Ebaluazio diagnostikoa koordinatzeko taldeak probetan lortutako emaitzen azterketa eta ondorengo balorazioa egingo du, eta klaustroari eta OOG (Ordezkaritza Organo Gorena) edo Eskola Kontseiluari horren berri emango die, emaitzak aztertu eta horiei buruzko gogoeta egin ahal izan dezaten. Horretarako, eta ereduari jarraiki, ikastetxeko txosten bat onduko du. Halaber, ikasle bakoitzaren familiari, bere emaitzak jakin araziko zaizkio.

3.– Ondoren, ikastetxearen ebaluazio diagnostikoa koordinatzeko taldeak Hobekuntzarako Esku-hartze Plan bat egingo du, beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzarako neurri eta proposamenak jasoz. Plan hori ikastetxearen Urteko Planean txertatuko da.

4.– Berritzegunearen erreferentziako aholkularia ikastetxeak eskatzen duen aholkularitza eskaintzeaz arduratuko da, bai Ikastetxeko Txostena eta Hobekuntzarako Esku-hartze Plana taxutzeko bai aipatu planean proposatutako neurriak gauzatzeko.

5.– Hala Hobekuntzarako Esku-hartze Plana nola Ikastetxeko Txostena erreferentziako ikuskariaren eskura egongo dira, eta hark testuok ebaluatzeko txosten bana prestatuko du. Gerora, proposatutako hobekuntza-neurrien gauzapenaren jarraipena egingo du, eta ikastetxeko zuzendaritzari bere jarduketen emaitzaren berri emango dio.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.–*** 1.– Hezkuntzako ikuskarien eta Berritzeguneetako aholkularien lanean eragina duten diagnosi-ebaluaketaren baitako jarduketak zerbitzu bakoitzaren Urteko Planetan jasoko dira.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak txosten teknikoa aurkeztuko du Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen bidez; txostena hezkuntza-komunitate osoari helaraziko zaio, eta bertan emaitzen eta oro har beharrezkotzat jotzen diren hobekuntza-neurrien azterketa xehea eskainiko da.

– Aquellos alumnos y alumnas que, en el momento de aplicación de las pruebas, lleven menos de un año de escolarización en el sistema educativo vasco y además desconozcan la lengua de aplicación de las diferentes pruebas.

***Artículo 8.–*** Proceso de mejora: actuaciones posteriores a la evaluación.

1.– El inspector o inspectora de referencia convocará a una reunión al asesor o asesora de referencia del Berritzegune y al equipo coordinador de la evaluación de diagnóstico de cada centro, para hacer una primera aproximación a los resultados y trasladar aquellas informaciones necesarias para que el centro elabore el Informe de centro y el Plan de intervención para la mejora.

2.– El equipo de coordinación de la evaluación de diagnóstico realizará un análisis y posterior valoración de los resultados obtenidos en las pruebas de evaluación de diagnóstico, que será presentada al Claustro de Profesores y Profesoras y al O.M.R. o Consejo Escolar con la finalidad de que puedan analizar y reflexionar sobre los mismos. A tal efecto elaborará, según modelo, un Informe de centro. Asimismo, comunicará a las familias los resultados individuales del alumnado.

3.– Posteriormente, el equipo de coordinación de la evaluación de diagnóstico del centro elaborará un Plan de intervención para la mejora con las medidas y propuestas de mejora que se consideren necesarias. Dicho plan se incluirá en el Plan Anual de centro correspondiente.

4.– El asesor o asesora de referencia del Berritzegune se responsabilizará del asesoramiento requerido por el centro tanto en la elaboración del Informe de centro y del Plan de intervención para la mejora como en la ejecución de las medidas propuestas en dicho plan.

5.– Tanto el Plan de intervención para la mejora como el Informe de centro estarán a disposición del inspector o inspectora de referencia quien realizará un informe valorativo de cada uno. Posteriormente, llevará a cabo el seguimiento de la ejecución de las medidas de mejora propuestas, informando a la Dirección del centro del resultado de sus actuaciones.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.–*** 1.– Las actuaciones derivadas de la evaluación de diagnóstico que afectan al trabajo de los inspectores e inspectoras de Educación y de los asesores y asesoras de los Berritzegunes serán contempladas en los correspondientes Planes Anuales de cada servicio.

2.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación emitirá un informe técnico a través del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa que se hará público para toda la Comunidad Educativa, en el que se realizará un análisis detallado de los resultados y de las medidas de mejora que, con carácter general, se consideren necesarias.

***Bigarrena***.– Ebaluazio diagnostikoaren ondorioz ikastetxe bakoitzak jasotzen dituen emaitza eta informazio guztien zaintza dagokion ikastetxeko zuzendariaren ardura izango da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Garapena eta ezarpena.

Hezkuntza sailburuordeak eskumena du Agindu honetan ezarritakoa garatu eta ezartzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

***Bigarrena***.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 2a.

Hezkuntza sailburuordea,
PEDRO M.ª OCHOA BERNALES.

***Segunda***.– La custodia de los resultados y de toda la información que, como consecuencia de la evaluación de diagnóstico se traslade a cada centro, corresponderá al director o directora del mismo.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Desarrollo y aplicación.

Se faculta al Viceconsejero de Educación para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de lo establecido en la presente Orden.

***Segunda***.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de diciembre de 2008.

El Viceconsejero de Educación,
PEDRO M.ª OCHOA BERNALES.